

Petronorrek osasuna kalte dezakeela esateko «frogarik ez» dela esan du Jaurlaritzak

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren zuzendaria legebiltzarrean izan da.
- Findegiaren inguruko bizilagunen osasunari buruz aritu da.

Kepa Ugarte Martiarena

Petronorren Muskizko (Bizkaia) findegiaren jarduerak inguruko herritarren osasunean eragin negatiboa duela esateko «inolak ebidentziarik» ez dagoela adierazi du Guillermo Herrero Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak. Hala ere, zehaztu du horrek ez duela esan nahi horri buruzko «kezkarik» ez dutenik, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak balizko edozein gorabehera «ikertzen eta kontrolatzen» jarraitzen duela argitu du.

Adierazpen horiek Eusko Legebiltzarrean egin zituen atzo Herrero, EH Bilduk azalpenak eskatu ostean. Hainbat gaixotasuneko Meatzaldean —Bizkaiko eskualde horretan dago Muskiz— duten eraginari buruzko estatistikak ezagutarazi zituen Osasun Publikoaren zuzendariak. Hark esandakoaren arabera, datu horiek ezin dute egiaztatu findegi inguruko bizilagunen osasuna beste eremu batzuetakoa baino okerragoa denik, Petronorren jardueraren ondorioz.

lido horretan, azaldu zuen gaixotasunek inguru horretan duten intzidentziaren atzean dauden

arrazoiak «faktore anitzek eragindakoak» direla. «Enpresarik ez dagoen beste eremu batzuetan ere agertzen da. Hau da, ezin duen ondorioz atera», azaldu zuen.

Populazioa eta errepideak
Herrero gogorarazi zuen inguru horrek «industria dentsitate handia» duela, eta aipatu zuen horri gehitu behar zaiola Ezkerraldean populazio handia eta trafiko handiko errepideak daudela, hala nola A-8 autobidea eta portutik irteten den errepidea. Trafiko «oso astuna» daukate.

Bestalde, aitortu zuen Abantón eta Muskizen osasun adierazle okerragoak daudela minbiziari, arnasketa eta zirkulazio sistemako gaixotasunei, diabetesari, arteria hipertentsioari, asmari eta tabakismoari dagokienez, EAEko batezbestekoarekin alderatuta. Hala ere, haren hitzetan, hori Ezkerraldeko beste eremu batzuetan ere gertatzen da.

Petronorren findegiaren inguruko kutsadura adierazleei dagokienez, Herrero azpimarratu zuen urteko batez besteko datuak, gehienetan, «airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako mailen nabarmen azpitil» egoten direla. ●

Aldundiarekin harremana eten du Naturkonek

NATURA— Naturkon naturaren kontserbaziorako Gipuzkoako sareak foru aldundiarekin zuen harremana eten du. Bi arrazoi argudiatu ditu: bilkurek naturaren kontserbazioan zuten eraginkortasun falta, eta natur ondarearen zaintzarako eta berreskurapenerako foru erakundearen estrategiarik eza.

Gizon bat ikertua, diru truke sexua eskatzeagatik

IRUÑA— Foruzaingoak 62 urteko gizon bat ikertu du, 16 urteko mutil bati sexu harremanen truke dirua eskaintzea leporatuta. Prostituzioaren aritzeria bultzatzea egotzi diote. Foruzaingoaren arabera, aurrena dirua eskaini zion «masaje baten truke». Mutilak tutoreei jakinarazi zien, eta salaketa jarri zuten.

Auzi medikuek ez dute baztertu heriotza bortitza

BILBO— Gizon bat epaitzen ari dira Bilbon, 2021eko urriaren 5ean 73 urteko gizon homosexual bat hiltzeaz akusatuta. 2021ean auzi medikuek ondorioztatu zuten heriotza naturala izan zela; epaiketaren atzoko saioan, ordea, esan zuten ezin dela baztertu heriotza bortitza izatea eta norbaitek gizona itotzea.

HITZ GUTXITAN

Labrazako parkean inbertitzeko aukera izango dute herritarrek

ENERGIA— Labrazako parke eolikotik gertu bizi direnei proiektuan inbertitu eta errentagarritasuna lortzeko aukera emango diete Iberdrolak eta EEE Energiaren Euskal Erakundeak. Gure Haizea ekimenaren bidez, banakako 1.000 eta 100.000 euro arteko inbertsioak egin ahal izango dira hiru urtez, eta bermatuta egongo da urteko %7ko interesak kobratzea. Guztira hiru milioi euroko inbertsioa egin ahal izango da.

Labraza, Gorrebusto, Oion eta Arabako Errioxako biztanleek izango dute lehentasuna.

Gainera, lehenengo bi herri horietako administrazio batzarrak auzotarrek «tarifa berezia» izango dute energiaren prezioetan. Horiek horrela, bilera informatiboak egingo dituzte finantza plataformekin nola bat egin azaltzeko: gaur Bastidan, hilaren 27an Oionen, eta 28an Guardian. Bi erakundeen ustez, «Labrazako parke eolikoak onura soziala ekarriko du ekimen horien bidez».

Parkea eraikitzearen kontra azaldu dira zenbait talde. Joan den astean, bost aktibista parkearen lanetan kateatu ziren, eta lau atxilotu zituzten.



Ainara Lasa BERRIAko Marketin arduraduna eta Amaia Galindez Kirikiño ikastolako zuzendaria. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

BERRIAk parte hartuko du maiatzaren 31ko Ibilaldiaren antolaketan, Bilbon

EUSKARA— Badator Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen aldeko festa: maiatzaren 31n egingo dute, Bilboko Txurdinaga auzoan, Kirikiño ikastolak antolatuta. BERRIAk eta Ibilaldiak elkarlanean jardungo dute; hitzarmena sinatu dute horretarako. Akordioan jaso dutenez, BERRIAk Ibilaldiaren egitaraua osatzen lagunduko du: 31n egunkariak gune propioa izango du, eta 30ean Mantangorri tailerra eta Pontx pailazoaren saioa antolatatu ditu.

Eskelak

(0034) 943-30 43 33 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlaguna edo BERRIAlagun harpideduna bazara, kontsultatu tarifa bereziak